

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak izan ezik. 2025eko iraila

2025eko irailean Euskal AEko landetxeetan igarotako ostatu-gauak % 6,2 igo dira, eta apartamentu turistikoetan % 20,4

Udako hiru hilabeteetan, landetxeetako ostatu-gauak % 4,0 igo dira eta apartamentu turistikoetakoak % 15,2

2025eko irailean, Euskal AEko landetxeetan sarreraren kopurua % 11,2 igo da aurreko urteko hil beraren aldean, eta ostatu-gauena % 6,2, Eustatek landutako datuen arabera. Urte batetik bestera izandako aldaketa horiekin, sarreraren kopurua 19.651 izatera iritsi da irailean, eta ostatu-gauen kopurua 47.340 izan da guztira.

Euskal AEko landa-ostatuuetako sarrerak, ostatu-gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio-mailak. Iraila 2025

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		gelaka	
	2025/09	m/m-12 (%)	2025/09	m/m-12 (%)	2025/09	2024/09	2025/09	p.p. *	2025/09	p.p. *
EUSKAL AE	19.651	11,2	47.340	6,2	2,41	2,52	35,1	2,0	42,2	1,9
Estatukoak	13.285	17,6	32.069	8,7	2,41	2,61	-	-	-	-
Atzerritarak	6.366	-0,1	15.271	1,5	2,40	2,36	-	-	-	-
Araba/Álava	3.530	27,0	7.933	28,2	2,25	2,23	25,1	5,9	29,3	4,2
Estatukoak	2.728	41,2	6.293	50,1	2,31	2,17	-	-	-	-
Atzerritarak	802	-5,4	1.640	-17,8	2,04	2,35	-	-	-	-
Bizkaia	7.025	18,2	16.110	17,0	2,29	2,32	40,5	6,2	47,1	7,2
Estatukoak	4.245	11,2	10.282	8,7	2,42	2,48	-	-	-	-
Atzerritarak	2.780	30,9	5.828	35,3	2,10	2,03	-	-	-	-
Gipuzkoa	9.096	1,7	23.297	-5,3	2,56	2,75	36,7	-2,9	45,3	-2,9
Estatukoak	6.312	13,8	15.494	-2,3	2,45	2,86	-	-	-	-
Atzerritarak	2.784	-18,1	7.803	-10,8	2,80	2,57	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajejuo puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabeteetan izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Urriaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Aurreko urteko irailarekin alderatuta % 0,1eko jaitsiera izan ondoren, 2025eko irailean atzerriko bisitarien sarrerak Euskal AEko landetxeetan izandako sarrera guztien % 32,4 izan dira. Ostatu-gauen kasuan, bestalde, atzerritar jatorrikoenak guztizkoaren % 32,3 izan dira, eta 2024ko irailarekin alderatuta % 1,5 igo dira, beraz.

Lurralde historikoen arabera, sarrerak % 27,0 igo dira Araban eta % 18,2 Bizkaian, eta Gipuzkoan, berriz, igoera moderatuagoa izan da, % 1,7koa, alegia. Ostatu-gauei dagokienez, Araban % 28,2 igo dira eta Bizkaian % 17,0; Gipuzkoaren kasuan, berriz, % 5,3 jaitsi dira urtetik urterako datuen arabera.

Euskal AEko mota horretako establezimenduetan batez besteko egonaldia 2,41 egunekoa izan da 2025eko irailean, aurreko urteko hil berean izandako 2,52 eguneko batez besteko egonaldia baino laburragoa¹.

Plazen arabera okupazio-maila ehuneko 2,0 igo da 2024ko irailekoarekin alderatuta, eta % 35,1ekoa izan da. Logelen arabera okupazioa, bestalde ehuneko 1,9 puntu igo da urte batetik besterako datuen arabera, eta azken hilabeteen % 42,2koa izan da.

Apartamentu turistikoei dagokienez, 2025eko irailean 26.526 sarrera izan dira, eta ostatu-gauak 79.474 izan dira. Datu horiek aurreko urteko irailekoekin alderatuz gero, sarreraren kasuan igoera % 35,0ekoa izan da eta ostatu-gauen kasuan % 20,4koa.

Apartamentu turistiko² esaten zaio blokearen edo multzoaren modalitatean kudeatzen duen ustiapeneko enpresa-unitate baten ardurapean eskaintzen den ostatu-unitate bakoitzari.

Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak. Iraila 2025

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		apartamentuak	
	2025/09	m/m-12 (%)	2025/09	m/m-12 (%)	2025/09	2024/09	2025/09	p.p. *	2025/09	p.p. *
EUSKAL AE	26.526	35,0	79.474	20,4	3,00	3,36	43,8	1,9	79,6	6,7
Estatukoak	13.782	20,0	42.477	10,5	3,08	3,35	-	-	-	-
Atzerriarrak	12.744	56,0	36.997	34,3	2,90	3,37	-	-	-	-
Araba/Álava	756	-32,5	11.083	19,7	14,67	8,27	33,3	3,8	73,8	-4,6
Estatukoak	579	-39,3	7.466	15,0	12,90	6,81	-	-	-	-
Atzerriarrak	177	5,8	3.617	30,9	20,46	16,54	-	-	-	-
Bizkaia	19.140	42,2	40.527	29,3	2,12	2,33	45,1	0,8	79,7	18,0
Estatukoak	9.719	25,9	19.828	16,4	2,04	2,21	-	-	-	-
Atzerriarrak	9.421	64,2	20.700	44,7	2,20	2,49	-	-	-	-
Gipuzkoa	6.630	30,7	27.864	9,7	4,20	5,01	47,5	2,0	81,8	-0,8
Estatukoak	3.484	24,0	15.184	1,8	4,36	5,31	-	-	-	-
Atzerriarrak	3.147	39,1	12.681	21,0	4,03	4,63	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabeteen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Urriaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

¹ Batez besteko egonaldia bidaiariek gaua igarotzen duten establezimenduetan batez beste ematen duten egun-kopuruari dagokio, eta ez Euskal AEn ematen duten egonaldi osoaren iraupenari.

² **Ez dira epigrafe honetan sartzen turismo-erabilerako etxebizitzak**, arrazoi turistikoengatik aldi baterako eskaintzen, merkaturatzen edo lagatzen diren etxebizitza partikularrak.

Euskal AEko apartamentu turistikoetan izandako sarrera guztien % 48,0 eta ostatu-gau guztien % 46,6 atzerritar jatorriko bisitariei dagozkie, 2025eko irailean urte arteko % 56,0ko eta % 34,3ko igoerak izan ondoren, hurrenez hurren.

Apartamentu turistikoetako batez besteko egonaldia 3,00 egunekoa izan da 2025eko irailean, 2024ko irailean Euskal AE osoan izandako 3,36 egunekoaren azpitik. Mota horretako establezimenduetako batez besteko egonaldia 14,67 egunekoa izan da Araban, 4,20 egunekoa Gipuzkoan eta 2,12 egunekoa Bizkaian.

Irailean, plazen okupazio-maila % 43,8koa izan da Euskal AEn, 2024ko irailarekin alderatuta ehuneko 1,9 puntu igo ondoren. Apartamentu bakoitzeko okupazio-mailak, berriz, ehuneko 6,7 puntu egin du gora, eta % 79,6ra iritsi da.

2025eko irailean, Euskal AEko **aterpetxe turistikoek** urte batetik bestera % 5,8ko igoera izan dute sarreretan, eta guztira 26.346 sarrera izan dira eta 46.780 ostatu-gau, aurreko urteko irailean baino % 13,3 gehiago. Bizkaian 15.584 sarrera izan dira mota horretako establezimenduetan, Gipuzkoan 9.637 eta, azkenik, Araban 1.125.

Euskal AEko aterpetxe turistikoetako sarrerak, gauldiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak. Iraila 2025

	Sarrerak		Gauldiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-maila plazaka (%)	
	2025/09	m/m-12 (%)	2025/09	m/m-12 (%)	2025/09	2024/09	2025/09	p.p.
EUSKAL AE	26.346	5,8	46.780	13,3	1,78	1,66	43,1	4,0
Estatukoak	9.458	9,3	17.889	23,8	1,89	1,67	-	-
Atzerritarrak	16.888	4,0	28.891	7,6	1,71	1,65	-	-
Araba/Álava	1.125	328,9	1.658	256,0	1,47	1,77	32,3	23,0
Estatukoak	942	288,3	1.431	220,9	1,52	1,84	-	-
Atzerritarrak	183	828,1	227	1.051,3	1,24	1,00	-	-
Bizkaia	15.584	26,3	29.133	44,6	1,87	1,63	51,7	14,6
Estatukoak	5.596	20,4	11.330	54,0	2,02	1,58	-	-
Atzerritarrak	9.988	29,8	17.802	39,1	1,78	1,66	-	-
Gipuzkoa	9.637	-21,6	15.989	-22,7	1,66	1,68	34,0	-10,8
Estatukoak	2.920	-22,3	5.127	-22,9	1,76	1,77	-	-
Atzerritarrak	6.717	-21,2	10.862	-22,6	1,62	1,65	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Urriaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzailleen Inkesta

2025eko irailean, aterpetxe turistikoetako egonaldien batez besteko iraupena 1,78 egunekoa izan da Euskal AE osoan, eta plazen okupazio-maila, urte batetik bestera ehuneko 4,0 puntu igo ondoren, % 43,1era iritsi da.

Datu metatuak (2025eko urtarrila-iraila)

2025ean, orain arte, Euskal AEko **landetxeetan** 144.190 sarrera erregistratu dira eta 388.802 ostatu-gau egin dira, 2024ko aldi betean metatutakoak baino % 5,0 eta % 5,3 gehiago. Batez besteko egonaldia 2,70 egunekoa izan da, hau da, aurreko urtekoaren antzekoa, 2,69 egunekoa izan baitzen. Okupazio-mailari dagokionez, plazen arabera neurtuta, % 34,5era iritsi da, eta 2024ko aldi metatu berean, berriz, % 32,3ra iritsi zen. Gelen arabera neurtuta ere 2024ko aldi metatu berekoa baino handiagoa izan da, kasu horretan % 37,1ekoa izan baitzen eta 2025eko bederatzi hilabete hauetan % 39,7koa izan baita.

Apartamentu turistikoei dagokienez, irailera arte metatutako aldian 220.342 sarrera izan dira eta 643.449 ostatu-gau; horrek adierazten du 2024ko aldi berarekin alderatuta sarrerek % 32,6 egin dutela gora eta ostatu-gauak % 16,8. 2025eko bederatzi hilabete hauetan batez besteko egonaldia 2,92 egunekoa izan da, eta 2024ko aldi berean, berriz, 3,32 egunekoa izan zen. Plazen arabera okupazio-maila % 41,2koa izan da, 2024ko aldi berekoa baino hamarren bat baxuagoa. Apartamentuen okupazio-maila % 72,2koa izan da, hau da, 2024ko aldi baliokideko okupazio-maila baino % 5,6 puntu handiagoa.

Aterpetxe turistikoei dagokienez, 2025eko bederatzi hilabete hauetan 212.710 sarrera eta 384.347 ostatu-gau izan dira, 2024ko hilabete berberekin alderatuta sarrerek % 3 eta ostatu-gauak % 2 gora egin ondoren. Batez besteko egonaldia 1,81 egunekoa izan da, aurreko urteko 1,82 egunekoaren azpitik. Azkenik, plazen okupazio-maila % 42,1ekoa izan da, 2024ko aldi metatu berean izandakoa baino % 0,1 txikiagoa.

2025eko udako balantzea

Udako hiru hilabetetan (2025eko uztailean, abuztuan eta irailean) Euskal AEko **landetxeetako** ostatu-gauak % 4,0 igo dira aurreko urteko udarekin alderatuta, eta sarrerak ere % 2,3 igo dira.

Lurralde historikoen arabera banatuta, ostatu-gauak % 0,8 igo dira Gipuzkoan, % 2,6 Bizkaian eta % 18,7 Araban. Bestalde, aurtengo udan sarrerek % 13,9 egin dute gora Araban eta % 4,9 Bizkaian, eta Gipuzkoan, aldiz, % 3,0 egin dute behera 2024ko udako hilabeteetakoekin alderatuta.

Euskal AEko landa-ostatueta sarrerak, ostatu-gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio-mailak. Uda(*). 2025

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		gelaka	
	2025	2025/2024 (%)	2025	2025/2024 (%)	2025	2024	2025	p.p.	2025	p.p.
EUSKAL AE	68.757	2,3	220.937	4,0	3,21	3,16	52,0	2,1	58,0	2,2
Estatukoak	46.520	0,1	153.837	-0,5	3,31	3,33	-	-	-	-
Atzerritarak	22.237	7,5	67.100	16,0	3,02	2,80	-	-	-	-
Araba/Álava	12.867	13,9	36.675	18,7	2,85	2,74	38,1	7,1	43,5	6,3
Estatukoak	9.299	11,5	27.273	19,2	2,93	2,74	-	-	-	-
Atzerritarak	3.568	20,7	9.402	17,2	2,64	2,71	-	-	-	-
Bizkaia	22.475	4,9	66.884	2,6	2,98	3,04	54,1	1,9	59,3	1,3
Estatukoak	14.349	-2,6	45.981	-2,3	3,20	3,19	-	-	-	-
Atzerritarak	8.126	21,2	20.903	15,0	2,57	2,71	-	-	-	-
Gipuzkoa	33.415	-3,0	117.378	0,8	3,51	3,38	57,3	-0,5	64,1	0,7
Estatukoak	22.872	-2,4	80.583	-4,9	3,52	3,62	-	-	-	-
Atzerritarak	10.543	-4,4	36.795	16,2	3,49	2,87	-	-	-	-

(*)Uztaila, abuztua eta iraila

e.p. = aurreko urteko aldi baliokidearekiko aldea ehuneko-puntutan

Data 2025eko Urriaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Batez besteko egonaldia 3,21 egunekoa izan da, 2024ko udako 3,16 egunekoa batez besteko egonaldia zertxobait gairatuz. Nabarmentzen da Gipuzkoako batez besteko 3,51 egunekoa egonaldia, eta Bizkaian 2,98 egunekoa izan da eta Araban 2,85 egunekoa.

Mota horretako ostatueta plazen arabera okupazio-maila, Euskal AE osoan, % 52,0koa izan da, eta gelen arabera % 58,0koa. Horrek adierazten du plazen kasuan ehuneko 2,1 egin duela onera eta gelen kasuan, berriz, 2,2.

Euskal AEko **apartamentu turistiko**ei dagokienez, 2025eko udan 98.494 sarrera izan dira, aurreko udarekin alderatuta % 26,2ko igoera izan ondoren. Bestalde, ostatu-gauak 279.588 izan dira, 2024ko udan baino % 15,2 gehiago.

Lurralde historikoen mailan, Bizkaian sarreretan izandako % 33,8ko igoera eta ostatu-gauetan izandako % 20,4koa nabarmentzen da. Gipuzkoan % 18,6ko eta % 11,9ko igoerak izan dira aldaera horietan, eta, azkenik, Araban sarrerak % 19,0 jaitsi dira eta ostatu-gauak, berriz, % 5,9 igo dira.

Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrerak, ostatu-gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio-mailak. Uda(*). 2025

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		gelaka	
	2025	2025/2024 (%)	2025	2025/2024 (%)	2025	2024	2025	p.p.	2025	p.p.
EUSKAL AE	98.494	26,2	279.588	15,2	2,84	3,11	50,1	-1,2	82,2	10,8
Estatukoak	49.403	18,2	146.993	9,1	2,98	3,22	-	-	-	-
Atzerritarrak	49.090	35,5	132.595	22,8	2,70	2,98	-	-	-	-
Araba/Álava	3.172	-19,0	34.010	5,9	10,72	8,20	32,9	-0,7	74,2	-8,6
Estatukoak	2.418	-20,5	24.244	4,7	10,03	7,61	-	-	-	-
Atzerritarrak	754	-13,5	9.767	8,9	12,95	10,29	-	-	-	-
Bizkaia	65.574	33,8	141.531	20,4	2,16	2,40	51,6	-4,5	81,9	14,8
Estatukoak	32.275	23,6	69.062	10,9	2,14	2,38	-	-	-	-
Atzerritarrak	33.300	45,4	72.470	31,1	2,18	2,41	-	-	-	-
Gipuzkoa	29.747	18,6	104.046	11,9	3,50	3,71	57,7	2,2	85,7	14,3
Estatukoak	14.711	16,5	53.687	9,0	3,65	3,90	-	-	-	-
Atzerritarrak	15.036	20,8	50.358	15,2	3,35	3,51	-	-	-	-

(*)Uztaila, abuztua eta iraila

e.p. = aurreko urteko aldi baliokidearekiko aldea ehuneko-puntutan

Data 2025eko Urriaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Batez besteko egonaldia 2,84 egunekoa izan da 2025eko udako hiru hilabeteak kontuan hartuta, eta 2024ko aldi berean 3,11 egunekoa izan zen.

2025eko udan, Euskal AE osoko plazen okupazio-maila % 50,1ekoa izan da, 2024koarekin alderatuta ehuneko 1,2 puntuko jaitsiera izan ondoren; eta apartamentuen kasuan % 82,2koa izan da, eta urte arteko datuetan ehuneko 10,8ko igoera izan da, beraz.

2025eko udako hilabeteetan, Euskal AEko **aterpetxe turistikoetako** sarrerak 99.842 izan dira guztira, eta ostatu-gauak 185.211. Aurreko urteko udako datuekin alderatuz gero, sarreraren kasuan igoera % 3,4koa izan da eta ostatu-gauen kasuan % 6,0koa.

Euskal AEko aterpetxe turistikoetako sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak. Uda*. 2025

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)	
							plazen arabera	
	2025	2025/2024 (%)	2025	2025/2024 (%)	2025	2024	2025	p.p.
EUSKAL AE	99.842	3,4	185.211	6,0	1,86	1,81	55,8	1,8
Estatukoak	36.202	8,1	76.256	22,2	2,11	1,86	-	-
Atzerritarrak	63.640	1,0	108.954	-3,0	1,71	1,78	-	-
Araba/Álava	4.797	236,9	7.533	156,1	1,57	2,07	47,9	28,5
Estatukoak	3.387	155,7	5.842	110,9	1,72	2,09	-	-
Atzerritarrak	1.410	1.321,9	1.691	885,7	1,20	1,73	-	-
Bizkaia	54.640	2,9	105.450	11,6	1,93	1,78	61,5	4,9
Estatukoak	20.457	4,2	44.962	34,6	2,20	1,70	-	-
Atzerritarrak	34.184	2,1	60.489	-0,9	1,77	1,82	-	-
Gipuzkoa	40.405	-3,8	72.227	-6,6	1,79	1,84	49,9	-4,9
Estatukoak	12.359	-1,4	25.453	-3,0	2,06	2,09	-	-
Atzerritarrak	28.046	-4,8	46.775	-8,5	1,67	1,74	-	-

(*)Uztaila, abuztua eta iraila

e.p. = aurreko urteko aldi baliokidearekiko aldea ehuneko-puntutan

Data 2025eko Urriaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Informazio-oharra

ETHren inguruan emandako erantzunen tasa hilabete honetan **% 89,4koa** izan da landetxeetan, **% 89,1ekoa** apartamentu turistikoetan eta **% 86,8koa** turismo-aterpetxeetan. Eustatek egindako ahalegina eskertu die inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: Tel.: 945 01 75 62